



Aurrera!

27. zk.

2007ko iraila

Informatika eta Telekomunikazioetako Teknologia Berriak Jendarteratzeko Aldizkaria

ITZko Bulego Teknologikoak argitaratua

AURKIBIDEA

- ITIL lan-esparrua
2. or.
- Datuak Babesteko Lege Organikoaren Segurtasun Neurrien Arautegi berriaren zirriborroa
6. or.
- Alboan:
Euskadiko garraio publiko eta kolektiboari buruzko informazio-ataria
(Garraio eta Herri Lan Saila)
10. or.
- Laburrak:
Widgetak
Mezu baztergarriak
12. or.

Lehenengo gai nagusi gisa, Information Technologies Infrastructure kontzeptua azalduko dugu, **ITIL** siglen bidez ezagunagoa dena. Gure inguruan agian hain ezaguna ez den metodologia honen helburua sektore desberdinetako jardunbide egokienetatik ikastea da, gero beste edozein erakundetan aplikatu ahal izateko.

Bestalde, eta **Datuak Babesteko Lege Organikoaren Segurtasun Neurrien Arautegiaren zirriborroa** laster izapidetuko denez, dakartzan berrikuntza nagusien errepaso egingo dugu. Ikusi ahal izango dugun bezala, Arautegiaren atal guztietan egin da aldaketaren bat, eta argitaratu zenez geroztik Datuak Babesteko Agentziara bidalitako iradokizunetako asko jaso dira. Nolanahi ere, legegintza- edota teknologia-arloarekin lotura zuzena duten hainbat eragileren arabera, beste alderdi askok zehaztu gabe jarraitzen dute eta irakurleak interpretatzeko uzten dira.

“Alboan” atalean, Garraio eta Herri Lan Sailak garatutako atari berri baten berri jaso dugu. “**Euskadiko garraio publiko eta kolektiboari buruzko informazio-ataria**” du izena. Webgune horrek mugikortasun iraunkorra nabarmentzen du, eta garraio publikoa erabiliz Euskal Autonomia Erkidegoan barrena mugitzeko ditugun aukerak azaltzen ditu.

Azkenik, “Laburrak” atalean, “**widget**” hitzak informatika-arloan duen esanahiaz eta ematen dituen aukerez jardungo gara. Amaitzeko, iradokizun batzuk egingo ditugu postontzira iristen zaizkigun **mezu baztergarriak** ahalik eta ondoen kudeatzeko.

ITIL lan-esparrua



Informazio-teknologiei buruzko hainbat aldizkari, dokumentu eta txostenetan agertzen dira ITIL siglak (Information Technologies Infrastructure Library). Baina zer da?, zertarako balio du? eta nola ezartzen da?.



HIZTEGIA

⁽¹⁾ OGC (The Office of Government Commerce):

Erresuma Batuko Ogasun Ministerioaren Diruzaintzaren Bulego independentea da. OGCrek helburua estandarrek definitzea eta Erresuma Batuko merkaturako jardunbiderik onenak ematea da. ITIL[®] -ren jabea da eta ITIL[®] -ren 3. bertsioa Diruzaintzaren Bulego independente honek babestu du.

ITIL eta IT Infrastructure Library izenak OGCrek erregistratutako markak dira.

ITIL siglak *Information Technologies Infrastructure Library* (Informazio Teknologien Azpiegitura Liburutegia) izenekoari dagozkio eta pertsonai, prozesuei zein teknologiari buruzko informazioaren teknologia-zerbitzuak zuzentzeko eta kudeatzeko prozesuetan eta jardunbide egokietan, edo hobeki esanda, jardunbide egokienetan oinarritutako erreferentzia-eredua osatzen dute. OGCK⁽¹⁾ egin du, eta BSiren (*British Standard Institution*) BS15000 araua betetzen eta garatzen du, egungo ISO 20000 estandarra.

“Ezin da erakunde edo kudeaketa-sistema bat «ITILen araberakoa» dela ziurtatu, baina ISO/IEC 20000ekin ziurta daiteke Informazio Teknologien zerbitzuen kudeaketaren gaineko ITIL gidak ezarri dituen erakundea.”

ITILen zehazturiko jardunbide egokienei esker, kostuak murriztea eta zerbitzuaren kalitatea hobetzea lortzen da barruko zein kanpoko erabiltzaileentzat, ahal bezainbeste aprobetxatzen dira langileen trebetasunak eta esperientziak, eta horrek produktibitatea hobetzea dakar.


ITIL, hasiera batean Erresuma Batuko gobernuarentzako gida izan bazen ere, Informatika Zerbitzuen Kudeaketan munduko estandar bihurtu da de facto, horrek dakartzan abantailekin.

HASTAPENAK

Gaur egun ITILen 1. bertsio gisa ezagutzen

denak, CCTAren babesean (Erresuma Batuko Telekomunikazio eta Konputazio Agentzia Nagusia, 2001eko apirilean OGCrek sartu zena, desagertu egin zen bereizitako erakunde gisa) garatu denak, GITM izena izan zuen (*Government Information Technology Infrastructure Method*, Gobernuaren Informazio Teknologiarekiko Azpiegitura Metodoa), eta hogeita hamar liburu inguru biltzera iritsi zen. Gobernu britainiarretik at liburu horiekiko zegoen interesa ikusita, eta gidatzat har zitezkeen eta ez metodo formal gisa, izena aldatu zitzaion.

Halaber, IBMk bere Yellow Books ezagunak (*A Management System for the Information Business*, Informazioaren Negoziorako Kudeaketa Sistema bat) ITILen agertu ziren kontzeptu nagusien aitzindari izan zirela defendatzen du. 80ko hamarkadaren hasieran dokumentatu zituen IBMk Sistemaren Kudeaketako jatorrizko kontzeptuak liburu horien lau liburukiko serie batean.



ITIL ziurtagiri profesional individuala den arren (hiru maila daude), ISO 20000ren kasuan, ziurtagiri korporatiboa edo erakundearen ziurtagiria da, horrek esan nahi duenarekin.

Alde horretatik, ISO 20000 egituraren barruan, gaiaren ikuspegi askoz ere zabalagoa ematen duen zatia da ITIL.

ITIL LIBURUTEGIA

Informazio Teknologien Azpiegitura Liburutegiak (ITIL) izen hori hartu du informazio-teknologiaren kudeaketaren barruan jardunbide zehatz banari eskainitako liburu-sorta batean delako jatorria. 1. bertsioa ia hogeita hamar liburutetik abiatuta, eta eskuragarriagoa eta merkeagoa izan zedin, 2. bertsioaren helburuetako bat liburuak administrazio-prozesuak jorratzeko multzo logikoen arabera multzokatzea izan zen, eta zortzi liburu osatu ziren:

Informazio Teknologien Zerbitzuen Kudeaketa:

1. Service Delivery (Zerbitzuen banaketa)
2. Service Support (Zerbitzuen euskarria)

Beste gida operatibo batzuk:

3. ICT Infrastructure Management (Informazio Teknologien azpiegituraren kudeaketa)
4. Security Management (Segurtasunaren kudeaketa)
5. Business Perspectives (Negozio-aukerak)
6. Application Management (Aplikazioen kudeaketa)
7. Software Asset Management (Software-aktiboen kudeaketa)

ITIL jardunbideak ezartzen laguntzeko, beste liburu bat argitaratu zen ezarpen-gidekin (Zerbitzuen Kudeaketari dagozkionak nagusiki):

8. Planning to Implement Service Management (Zerbitzuen kudeaketa ezartzeko asmotan)

Jatorrizko zortzi liburuei gida bat gehitu zitzaion IKT departamentu txikiagoentzako gomendioekin:

- ITIL-Small-Scale Implementation (ITIL eskala txikian ezartzea)

Duela gutxi (2007ko maiatzean) ITILen hirugarren bertsioa argitaratu da ingelesez. Hainbat hobekuntza eta ikuspegi-aldaketa


nabarmen dakartza, eta bost liburu hauek osatzen dute:

- 1.- Service Strategy - SS (Zerbitzuaren estrategia)
- 2.-Service Design - SD (Zerbitzuaren diseinua)
- 3.-Service Transition - ST (Zerbitzuaren trantsizioa)
- 4.-Service Operation - SO (Zerbitzuaren operazioa)
- 5.-Continual Service Improvement - CSI (Zerbitzuaren etengabeko hobekuntza)



ITIL-EN BERTSIO BERRIAREN HOBKUNTZAK

Gaur egun, Informazio Teknologien Zerbitzuen Kudeaketari buruzko liburu erabilgarrien



multzoa baino askoz ere gehiago da ITIL; erakundeak, tresnak, hezkuntza- eta aholkularitza-zerbitzuak, loturiko lan-esparruak eta argitalpenak biltzen ditu. Horrela, liburu horiek, osotasunean hartuta, Informazio Teknologien zerbitzu baten bizitza-zikloaren ideia azaltzen dute: diseinutik abiatuta, trantsizio-aldi bat izaten da, aldi horretan zerbitzua garatu eta ezartzen da, eta gero horrekin lan egingo da; hori guztia estrategia batek lagunduta eta etengabeko hobekuntzaren babesean.

Bizitza-ziklo baten inguruko antolaketa honekin

ITIL vs ISO20000

ITILen aplikazioa eta ISO20000 arauak osagarriak dira. ITILen balio nagusia gomendioen xehetasun-mailan dago; ISO20000ren balioa, berriz, zerbitzuen kudeaketa-sisteman eta auditoretzan dago. Halaber, azken hori ezartzeko, ITIL ezagutu behar da.



koherentzia handiagoa eman nahi zaie ITILen liburu eta prozesuei, haren aplikazioa intuitiboagoa eta praktikoagoa izan dadin, eta ongi lotutako multzo gisa har dadin. Hori zen ITILen 2. bertsioaren ahulezia nagusietako bat. Zortzi liburuek eta gidak helburu ulergarriak, zentzuzkoak eta desiragarriak zituzten arren, ez zuten denak bateratu eta zentzua emango zien batasunik, osotasunean hartuta. Gainera, bizitza-zikloaren egitura horri esker, onura hauek lortuko dira:

- * Negozio-estrategia Informazio Teknologien zerbitzuen estrategiarekin integratzea.
- * Zerbitzu bizkorren diseinua eta ROIren (Return on Investment) kalkulua erraztea.
- * Berrikuntza-mota askotarako baliagarriak diren zerbitzuen trantsiziorako ereduak ematea.
- * Zerbitzu-hornitzaileen kudeaketa eta azpikontratazio-ereduak desmitifikatzea.
- * Zerbitzuak errazago ezarri eta kudeatzea, egungo negozio-premia dinamiko, arriskutsu eta aldakorretara egokitzeko.
- * Neurketa hobetzea eta Informazio Teknologien zerbitzuen balioa frogatzea.

“2007ko maiatzean argitaratu da ITILen 3. bertsioa, bost liburuk osatua.”

- * Hobekuntzaren abiarazleak eta zerbitzuaren bizitza-zikloaren edozein puntutako aldaketa identifikatzea.
- * ITILen egungo hutsuneak konpontzea.


ITILen beste alde sendo bat zerbitzu-kudeaketarako beren metodoak eta jarduerak dituzten erakundeetan erabili ahal izatea da. Hau erabiltzeko ez da pentsatzeko eta jarduteko modu guztiz berririk behar. Dauden metodo eta jarduerak testuinguru egituratuan

ezartzeko lan-esparrua eskaintzen du. Prozesu desberdinen arteko loturak nabarmentzen direnez, Informazio Teknologien funtzioen arteko komunikazio- eta lankidetzak hutsuneak



ezaba edo minimiza daitezke. Izan ere, ITILek frogatutako metodo bat ematen du prozesu, rol eta jarduera komunak planifikatzeko, batzuetatik besteetara egokitutako erreferentziekin, eta komunikazio-lineek haien guztien artean nola funtzionatu beharko luketen adieraziz.

Artikulu honen hasieran aipatu bezala, “de facto” estandarra denez, metodo honen funtsezko abantaila bat hizkera komunaren erabilera da. Liburuek termino asko deskribatzen dituzte; zuzen erabiliz gero, lagungarri dira erakunde barruko pertsonak elkar uler dezaten. ITILen



oinarritutako proiektuen zati handi bat pertsonak hizkera komun hau erabili dezaten lortzea da. Horregatik, trebakuntza da ezarpen- edo hobekuntza-programa oren oinarri

nagusia. Proiektu batek arrakasta lortzeko, tartean diren pertsonak hizkera komuna erabili behar dute.



Gaur egun "kalitatea" eta "bezeroa" hitzek balio handia dute edozein negozio-eredutan. Hain zuzen ere, ITIL kalitate handiko zerbitzuen horniduran zentratzen da, eta arreta berezia eskaintzen die bezeroarekiko harremanei. Horrek esan nahi du bezeroarekin hitzartutako

guztia eman behar duela erakundeak, eta horretarako ezinbestekoa da erakundearen eta bezeroen artean harreman estua mantentzea.

ONDORIOAK

Azken finean, ITILen filosofia praktikoa dela esan daiteke, eta industriaren jardunbide egokienei heltzean datza. Eskalagarria izatea sustatzen da, erakunde desberdinen berezitasunetara eta konplexutasunera egokitzeko, erabilitako teknologia edozein dela ere.

ITILen gune ofiziala:

<http://www.itil.co.uk/>



KASU ERREALAK

Adibide gisa, gure inguruko zenbait enpresek dagoeneko aplikatzen dute funtzionamendu-metodologia hau. Bestek beste, Ibermáticaren kasua nabarmen genezake; erabiltzaileentzako euskarriarekin loturiko zerbitzuak eskaintzen ditu (outsourcing-aren bidez), ITIL jardunbide onenei jarraituz. Zerbitzuan sinergiak eta eraginkortasun handiagoa bilatzea da helburua, eta horretarako, kalitatea hobetzen duten eta ordutegi desberdinetan sartzen diren deien bolumena jakiteko, jarduerak tipifikatzeko, beste talde batzuekiko komunikazioak posta elektronikoa automatizatuaren bidez kudeatzeko eta abarretarako aukera ematen duten neurketa- eta operazio-tresna batzuk ezartzen dira.

Zerbitzu honek esperientzia sendotzen du Service Desk-en azken joeren barruan (ITIL prozesua) eta "Contact Center" erako tresna aurreratuekin.

ISO9000 KALITATE ESTANDARRA

ISO9000 ziurtagiria European lan egiten duen edozein konpainiarentzako "betebehar" bihurtzen ari da. Berez, geroz eta joera handiagoa dago ISO9000 ziurtagiria unibertsalki nazioarteko estandar gisa onartzeko.

Konpainia askok ISO9001 ziurtagiria eskatzen diote beren banatzaileei; horregatik, ziurtagiri hori duten konpainiak negozio-aukera handiagoak dituztela ohartzen dira. Horrez gain, konpainiak kalitatea ziurtatzeko sistema egokia duela egiaztatzen du ISO9001 ziurtagiriak.

Nabarmenak dira ziurtagiriaren onurak: bezeroek izapidetzen dituzten erreklamazioak murriztea, kostu operatiboak nabarmen murriztea eta produktu eta zerbitzuen eskaera handitzea.

Arauen zerrenda:


- **ISO 9000.** Kalitatearen kudeaketa-sistemak: oinarriak eta hiztegia (arauak ulertzeko abiapuntua, oinarriko terminoak definitzen ditu).
- **ISO 9001.** Kalitatearen kudeaketa-sistemak: betekizunak (bezeroaren betekizunak eraginkortasunez betetzeko erabiltzen da).
- **ISO 9004.** Kalitatearen kudeaketa-sistemak: jarduera hobetzeko ildoak (kalitatearen kudeaketa-sistemaren eragimena eta eraginkortasuna hartzen ditu bere baitan).
- **ISO 9011.** Ingurumen- eta kalitate-auditoretzarako ildoak (zehaztutako kalitate-helburuak lortzeko sistemaren gaitasuna egiaztatzeko ildoak ematen ditu).





Datuak Babesteko Lege Organikoaren (DBLO) Segurtasun Neurrien Arautegiaren (SNA) zirriborro berriaren azterketa

Hasi dira dagoeneko DBLOaren Arautegi berria onesteko izapideak. Jada egina dago egun indarrean dauden Legearen eta Arautegiaren inguruko berrikuntza batzuk jasotzen dituen zirriborroa.



HIZTEGIA

⁽²⁾ **SNA**: 994/1999 Errege Dekretua, ekainaren 11koa, fitxategi automatizatuen segurtasun-neurrien arautegia onesten duena.

⁽³⁾ **DBLO**: 15/1999 Lege Organikoa, abenduaren 13koa, datu pertsonalak babesteari buruzkoa.

Artikulu honetan banan-banan aipatuko ditugu DBLOaren⁽³⁾ SNAren⁽²⁾ zirriborro berriak proposatzen dituen berrikuntza nagusiak, departamentu desberdinetako fitxategien arduradunei eta segurtasun-arduradunei jarduketa-ildo berriak aurreratze aldera.

BERRIKUNTZAK

Jarraian azalduko ditugu berrikuntza nagusiak:

- Zirriborroak legegintza-teknika betetzen du, eta oraingoan barne hartzen du **Arrazoen azalpena**; besteak beste, Datuak Babesteko Espainiako Agentziari ahalmena ematen dio 34/2002 Legearen (“Informazio Gizartearen Zerbitzuei buruzko Legea”) eta 32/2003 Legearen (“Telekomunikazioei buruzko Lege Orokorra”) inguruko zehapenak aplikatuz jarduteko.
- Bestalde, **indargabetu** egingo lirateke 1332/1994 Errege Dekretua, antzinako DPTALOaren (Datu Pertsonalen Tratamendu Automatizatuaren Lege Organikoa) alderdiak garatzen dituena, eta 994/1999 Errege Dekretua (4.4., 17., 18., 19. eta 20. artikulua izan ezik), datu pertsonalak dituzten fitxategi automatizatuen segurtasun-neurriei buruzko arautegia onartzen duena.
- **Zehaztasun handiagoz definitu dira** lehen anbiguotzat hartzen ziren kontzeptuak, honako hauek, adibidez:

“Datu pertsonala: identifikatutako edo identifikatu daitezkeen pertsona fisikoei buruzko edozein informazio (numerikoa, alfabetikoa, grafikoa, fotografikoa, akustikoa edo bestelakoa)”.

“Osasunari buruzko datu pertsonalak: pertsona baten lehengo, oraingo eta etorkizuneko osasun fisikoari zein mentalari buruzko informazioa. Pertsonen osasunari buruzko datutzat hartzen

dira bereziki haien ezgaitasun-mailari eta informazio genetikoari dagozkionak”.

6.2.c) artikuluan “pertsona” hitza sartu da erabiltzailearen definizioaren barruan: “Datuetarako edo baliabideetarako sarbidea baimenduta duen pertsona, subjektua edo prozesua”.

6.2.o) artikulua dokumentu-transmisioaren definizioa jasotzen du: “dokumentuan jasotako informazioa helarazi, jakinarazi, bidali, eman edo zabaltzea”. Definizio horrek euskarriarena osatzen du: “datuak biltzen edo jasotzen dituen objektu fisikoa, edo informazio-sistema batean erabil daitezkeen objektua, zeinean datuak grabatu edo berreskuratu daitezkeen”. Automatizatu gabeko fitxategiei ere aplikatu dakieke.

- Zehatzago azaldu dira **osasunari** buruzko datuak ere. Barne hartu dira ezgaitasun-datuak eta datu genetikoaren tratamendua.



- Beste puntu garrantzitsu bat egun baliodunen **epeen zenbaketa**ren ingurukoa da, hau da, lan-egunak bakarrik zenbatuko lirateke (larunbatak, igandeak eta jai-egunak kanpo utzita).

Datuak Babesteko Espainiako Agentziaren arabera, titulartasun pribatuko fitxategien

kasuan, egun naturalen epea (ezin da eten) aplikatu behar zen, eta titulartasun publikoko fitxategien kasuan, berriz, egun baliodunen epea aplikatzen zen. (AGPDren 534/2003 txostena).

- Beste berritasun bat lege-ordezkarien baimen argirik gabe **adingabeei** buruzko datuak biltzeko debekua da. Gainera, horiei zuzendutako informazioa hizkera errazean eman behar da. Fitxategiaren edo tratamenduaren arduradunari dagokio adingabearen adina eta gurasoen edo lege-ordezkarien adostasunaren benetakotasuna egiaztatu direla bermatzea.
- **Isilbidezko adostasunari**⁽⁴⁾ dagokionez,

berritasun batzuk sartu diren arren, oraindik ere zalantzak daude araututako alderdiren baten inguruan.

[ikus "Isilbidezko adostasuna" koadroa]

- **"Tratamenduaren arduraduna"** irudiari dagokionez ere berrikuntzak izan dira. Arduradunari aukera ematen zaio hirugarren batekin azpikontratatzeko, tratamenduaren arduradunak baimena eman ondoren, eta baldintza jakin batzuk beteta. Kasu honetan tratamenduaren arduradun izango da azpikontratista; kontratuko akordioaren bat bete ezean, hura izango da erantzulea eta, ondorioz, dagozkion zehapenak izango ditu.



HIZTEGIA

(4) Isilbidezko adostasuna:

"Formalki ulertzen, hautematen, entzuten edo esaten ez dena, baizik eta ondorioztatu egiten dena, arrazoi batzuegatik argi geratzen delako, argi eta garbi adierazita bezala".

Azken finean, fitxategiaren arduradunak interesdunaren isilbidezko adostasuna lortzeko mekanismoa da.

Datuak Babesteko Espainiako Agentziak 2000. urtean eginiko "Caracteres del consentimiento definido por la LOPD" izenburuko txostenean argitu zuen isilbidezko adostasunaren legitimitatea.

Isilbidezko adostasuna

DBLOak interesdunaren adostasun argia exijitzen du haren datu pertsonalak erabiltzeko, baimen horretatik salbuetsita geratzen den kasuren bat ez bada behintzat (administrazioak, lege-babesa, publikoaren eskura dauden iturriak, kontratuko arrazoiengatik, etab.). Beste edozein kasutan, datuak biltzerakoan lortu ohi da adostasuna.

Interesdunarentzako informazio-klausulan jasotako helburuetarako erabiltzeko bakarrik balio izango du adostasun horrek. Baina zer gertatzen da erabileraren helburuak zabaldu edo laga nahi izanez gero? Arautegi berriak "isilbidezko adostasuna" izenekoa lortzeko aukera ematen du:

1) Fitxategiaren arduradunak isilbidezko adostasuna erabili ahal izango du, berariazko baimena exijitzen denean izan ezik.

2) Fitxategiaren arduraduna interesdunari zuzenduko zaio, eta egin nahi diren helburu berriak jakinaraziko dizkio (DBLOaren 5. artikulua). Jakinarazpen hori faktura batean sar daiteke, edo jaso duela egiaztatzen duen beste mekanismoren baten bidez egin daiteke.

3) Fitxategiaren arduradunak 30 eguneko epea emango dio erabiltzaileari ezezkoa adieraz dezan, eta, ezezkorik eman ezean, epe hori igarotakoan isilbidezko adostasuna eman duela ulertuko da. Ezezkoa erraz eta doan jakinarazi ahal



izango da (aurrez frankeatutako posta-bidalketa bat eginez, edo doako deiaren bidez).

Puntu hau aztertuz gero, esan daiteke interesdunak informazioa jaso izana bermatuta geratzen dela, eskaeraren bidalketaren frogaren karga fitxategiaren arduradunari berari uzten baitzaio.

Hala ere, erabiltzaileak ezezkoa jakinarazi izanaren bermeak zalantza gehiago sor ditzake; izan ere, erabiltzaileak nola froga dezake telefono-deia egin duela doako zenbaki batera, edo ezezkoa bidali duela aurrez frankeatutako gutun-azal baten bidez?. Orain arte, erabilerari horri ezezkoa eman diola frogatzeko interesdunak duen mekanismo praktikoa eta seguru bakarra posta ziurtatua erabiltzea da, eta hori arauaren aurka doa.

Beste irtenbide bat bilatze aldera, mekanismo erraza izango litzateke isilbidezko adostasuna eskatu nahi duten fitxategien arduradunek interesdunari Interneteko aplikazio erraz bat eskura jartzea, beren datuak erabiltzeari ezezkoa eman ahal izan diezaioten, eta aplikazio horrek "jaso izanaren agiri" gisa transakzio-kode bat itzultzea. Metodo hau doakoa da eta abantaila handia ematen du, interesdunak bere (isilbidezko) adostasuna ukatu izanaren edo ezeztatu izanaren froga eduki baitezake.



Esteka interesgarriak:

* Datuak Babesteko Euskal Agentziaren webgunea:

www.avpd.euskadi.net

* Datuak babesteari buruzko Intraneteko webgunea:

“Jakina”

“Informatika eta Telekomunikazioak”

“DBLO”

- Talde bereko (multinazionalak) enpresen filialen arteko datuen **nazioarteko transferentziei** dagokienez, Datuak Babesteko Espainiako Agentziako zuzendariaren baimena behar izango da transferentzia babes-maila egokia ematen ez duten herrialdeetara zuzentzen bada, bizitza pribatuaren babesa errespetatzeko bermeetatik hasi eta datuak babesteko oinarritzko eskubidera arte.
- Ez da beharrezkoa izango 70.6. artikuluan definituriko **sarbideen erregistroa**, baldin eta fitxategiaren edo tratamenduaren arduradunak datu pertsonalak berak bakarrik eskura ditzakeela eta berak bakarrik erabiltzen dituela bermatzen badu. Inguruabar hori behar bezala arrazoituta jaso behar da segurtasun-dokumentuan.
- Ideologiaren, afiliazio sindikalaren, erlijioaren, sinesmenen, arraza-jatorriaren, osasunaren eta bizitza sexualaren inguruko datuei eta, besteak beste, genero-indarkeriazko ekintzen ingurukoei ere **goi-mailako** segurtasun-neurriak ezarriko zaizkie.
- **Osasunari buruzko datuak** (soilik dagokionaren ezgaitasun- edo baliaezintasun-mailari buruzkoak) dituzten fitxategietan edo tratamenduetan oinarritzko segurtasun-mailako neurriak ezartzeko aukera ematen da, arrazoia betebeharr publikoak betetzea baldin bada.
- Oinarritzko mailako neurrien barruan, astero **babes-kopiak** egiteko eta datuak berreskuratzeko prozedurak ezarri beharko



dira (aldi horretan datuak eguneratu ez badira salbu). Bestalde, fitxategiaren edo tratamenduaren arduradunaren betekizuna izango da sei hilez behin babes-kopiak

egiteko eta datuak berreskuratzeko prozedurak behar bezala dabilzala eta aplikatzen direla egiaztatzea.



- Bi urtez behingo **auditoretza** betebeharrak bere horretan jarraitzen du erdi- eta goi-mailako fitxategietarako, baina auditoretza barruan edo kanpoan egiteko aukera gehitu da, eta, horrez gain, auditoretzen txostenak Datuak Babesteko Espainiako Agentziaren esku geratzeko dira.


ZENBAIT HAUSNARKETA

Jarraian, talde batzuek Zirriborroaren artikuluei buruz dituzten iritzi, zalantza edota iradokizunak jaso ditugu:

- Komunikazio- eta telekomunikazio-sareak (57. eta 83. artikulua). 2000. urteko memoriaren irizpidea barne hartzea gomendatu da; horren arabera, ez litzateke beharrezkoa izango datuak zifratzea arduradunaren sarearen bidez bidaltzen direnean, beste sare batzuetatik igaro gabe.
- Informazioa bidaltzeko mekanismoa den heinean, komenigarritzat jo da e-mailaren balorazio juridikoa egitea, bai eta, horrenbestez, erakundeek beharrezko segurtasun-neurriez hornitzeko duten betebeharrak ere.
- Zirriborroaren artikulua batzuetan segurtasun-dokumentuan erabiltzaileak eta erabiltzaileen profilak barne hartzeko beharra aipatu da. Bi kasuetan, fitxategiaren edo tratamenduaren arduradunak bi aukeretako baten alde egin dezake: erabiltzaile zehatzak edo erabiltzaileen profilak. Azken kasu horretan, hitzez hitz, deskribapen funtzionala

eta identifikazio indibiduala barne hartzearen alde egin da, eta horrek lan gehigarria dakar segurtasun-dokumentua eguneratuta mantentzeko.

- Automatizatu gabeko fitxategiei aplikagarri zaizkien segurtasun-neurriak sartzeari dagokionez, kontrol batzuk exijitu dira, oinarritzko mailan, fitxategi horien identifikazioari, inbentarioari, memoriari, lokalizazioari eta kontsultari dagokienez. Aditu batzuen arabera, erakundearen administrazio- (fakturen datuak, etab.) eta merkataritza-korrespondentzia guztia (eskaerak, bezero errealekiko eta bezero izan daitezkeenekiko komunikazioak) kontrolatu beharra ekar dezake horrek.
- Zirriborrotik ondoriozta daitekeenaren arabera segurtasun-arduradunaren irudia espezializatutako enpresetara kanpora daitekeenez, aukera hori esplizituki aipatzea eta zerbitzu hori emateko gutxieneko betekizun batzuk eta erantzukizun-erregimen bat ezartzea eskatu da.
- 70.3. artikulua kasuan: “sarbideak erregistratzeko aukera ematen duten mekanismoak segurtasun-arduradun eskudunaren zuzeneko kontrolpean egongo dira, eta haiek desaktibatzea edo manipulatzeko galarazi behar dute”, galdera



hau planteatu da: Fitxategiaren arduradunak nola berma dezake segurtasun-arduradunak sarbideak ez desaktibatzea edota manipulatzeko? Zehapenaren titularra fitxategiaren arduraduna izango litzatekeela jakinda, arrisku hori arintzeko bide bakarra (segurtasun-arduradunaren eta haren kargura diharduten pertsonen) lan-kontratuan langileen leialtasunik eza

zigortzeko klausulak sartzea al da?

- Segurtasun-neurrien **auditoretzari** dagokionez, aditu batzuek auditore irudiarentzako gutxieneko betekizun batzuk definitu beharra proposatu dute. Adibidez: esperientzia, gaitasun teknikoa, erantzukizun-erregimena, etab. Halaber, auditoretza-txostenerako “ereduzko” egitura



bat definitzea komeni dela adierazi da.

- 77. artikuluan fitxategiaren arduradunaren edo tratamenduen arduradunaren lokaletatik kanpoko lan-erregimenaz hitz egiten da; **telelan** gisa har daiteke, kasu hauetan ez da zehazten PDA-mugikorren modelo hibridoari aplikatu beharreko tratamendu juridikoa; egungo modelo gehienek ez dituzten zifratze-sistemak beharko litzukete.
- Goi-mailako fitxategientzako **euskarrien** banaketari dagokionez (81. artikulua), informazio hori, garraiatzerakoan, eskuraezina edo manipulaezina izatea eskatu da. Aldatu egin da eskuragarri ez izateko baldintza dela-eta informazioa ulargarria ez izateko betekizuna.
- Goi-mailako datuen eta datu horiek berreskuratzeko prozeduren babes-kopiak egiteari dagokionez, beste leku batean eman behar direla adierazi da. Beraz, gehiago zehaztea komeniko litzateke (eraikin desberdina, etab.).

Egiazta dezakegun bezala, prestatu den eta artikulua honetan azaldu dugun zirriborroan berritasun asko jaso dira. Hala ere, zenbait adituren iritziz, alderdi asko geratu dira erabat zehazteke, eta interpretazio-arazoak sor ditzakete.



**Datuak Babesteko
Espainiako
Agentzia (AEPD)**

Aurreko dokumentuan azaltzen ziren zalantza eta anbiguitasun asko (dokumentu horrek indarrean jarraitzen du zirriborroa onartu bitartean) argitzen joan dira aldi honetan, Datuak Babesteko Espainiako Agentziak berak emaniko ebazpenen eta arau-instrukzioen bidez.

Justizia Ministerioak eta Datuak Babesteko Espainiako Agentziak osatutako lan-talde batek idatzi du zirriborro berria.





ALBOAN:

EUSKADIKO GARRAIO PUBLIKO ETA KOLEKTIBOARI BURUZKO INFORMAZIO ATARIA

Garraio eta Herri Lan Saila

“Atariaren
helburua
Euskadin modu
iraunkorren
nola mugitu
jakitea da.”

SARRERA

Duela gutxi, Garraio eta Herri Lan Sailak beste aplikazio bat jarri du abian, *Euskadiko garraio publiko eta kolektiboari buruzko informazio-ataria* izenekoa, eta horren helburua, funtsean, honako esaldi honekin labur daiteke: nola mugitu Euskadin modu iraunkorren.

Atari honen bi ardatzak honako hauek dira: batetik, mugikortasun iraunkorra eta, bestetik, irisgarritasun unibertsala. Hala, beraz, premisa horietan oinarrituta, ataria web bilatzailea dela esan daiteke (bereziki, garraio kolektiboko web-ena) eta, horri esker, desplazamenduak planifika daitezke, garraio bide horri lehenetsia emanda.

Bidaien jatorria eta norakoa planifikatzeari dagokionez, jatorri gisa EAE osoa ezar dezakegu eta norako gisa, EAEz gain, Estatu eta nazioartea ere aukera ditzakegu. Horrek guztiak ahalegin handia egitea ekarri du EAEko garraio-

operadore ugariengandik informazioa biltzeko.

ATARIAREN AUKERAK

Egun, atari honetara www.euskadi.net-en bidez sar gaitzake. Horri esker, eskatutako zerbitzua eman diezaguketuen garraio-operadoreak bila ditzakegu (hala ere, ez du informaziorik ematen tarifa, ordutegi edo trafikoko gorabehera zehatzen inguruan). Horretarako, hiru bilatzaile jarri dira erabilgarri:

- **EAEko erakundeak eta beste baliabide batzuen bilatzailea:** “erakundeak” aipatzen dugunean, ez gara ari soilik garraio-operadoreez, baizik eta baita garraio-zerbitzuei buruzko informazioa kudeatzen duten elkarteek ere. Oro har, azken hauek administrazio publikoak edo partzuergoak dira. “Garraio bide baliabide batzuen” pean, honako zerbitzu hauek daude:

Erakunde (operadore eta informazio-zerbitzuak) eta beste baliabide batzuen bilatzailea

Geografia-eremua: **Gipuzkoa**

IKUSI erakundeak | IKUSI beste baliabide batzuk

Izena	Garraio bidea	Harremanetarako	Informazio gehiago
LA ESTELLESA		Tf: (034) 948 32 65 09 / 902 10 10 44	
LA GUIPUZCOANA, AUTOBUSES		Tf: (034) 943 85 11 59, e - mail: info@laguipuzcoana.net	
LA RONCALESA		Tf: (034) 948 22 20 79,	
TRANSPORTES PESA		Tf: (034) 902 10 12 10, e - mail: atencionusuari@pesa.net	
UNIONIBUS		Tf: (034) 902 11 96 99	
VIBASA		Bezeroaren arreta Tf: (034) 902 10 13 63, e - mail: vibasa@vibasa.es	
PATXITAXI		Tf: (034) 656 710 167, e - mail: servicios@patxitaxi.com	
RADIO TAXI BIDASOA		Tf: (034) 943 63 33 03	
RADIO TAXI DONOSTI		Tf: (034) 943 46 46 46	
RADIO TAXI JAIZKIBEL		Tf: (034) 943 391 414	

<< Aurreko orria | 1 2 3 4 | Hurrengo orria >>

Bilaketa berria



Hiriaren arteko joan-etorrien bilatzailea.

1. urratsa. Joan-etorria definitzea

2. urratsa. Emaitzen zerrenda

3. urratsa. Bidaia Plana

Irteera eta jomuga-mota

Lurraldea:

Irteera:

Jomuga-mota: EDOZEIN

Garraio-bidea

Autobusa Itsasokoa Airekoa Trena Metroa Tranbia Kablea Bizikleta Taxia

Ibilgailu jabetuna (aparkalekuak, ibilgailua partekatzea...) Denetarikoa

Mugikortasun urritua

Bai

Garbitu

Bilatu




"Ataria hizkuntza askotan emana dago: euskaraz, gaztelaniaz, ingelesez eta frantsesez".

bizikletak maileguan hartzea, taxiak, aparkaleku gomendatuak, erabilera publikoko igogailuak, ibilgailua partekatzea, etab. Bestela, erakundearen fitxara ere sar gaitzeko eta, bertan, bere web orriaren erreferentzia aurkituko dugu.

- **Hiriarteko desplazamenduen bilatzailea:** EAEn barruan herri batetik bestera mugitzeko edo EAetik Estatuaren gainerakora edo atzerriko beste herrialde batzuetara joateko laguntza da. Bilatzaileari esker, bidaia-plana presta daiteke eta, horretarako, desplazamendu jakin baterako nahitaz kontsultatu beharreko gutxieneko web batzuk aukeratu ditu. Hiru urrats ditu: desplazamenduaren definizioa, emaitzen zerrenda eta bidaia-plana.
- **Hiri-barruko desplazamenduen bilatzailea:** EAeko herri batean mugitzeko dauden aukerak aurkeztu ditu. Hala, aukeraturako herrian bidaia-plana egiteko nahitaz kontsultatu beharreko web-ak hautatu ditu.

ERABILITAKO TEKNOLOGIA

Ataria Oracle v.10 datu-base erlazionalako kudeaketa-sisteman oinarrituta dago; web zerbitzaria iPlanet v.4.0 da, aplikazioen zerbitzaria Weblogic v.8.1/JDK v.1.4.0 eta edukien kudeatzailea Interwoven. Halaber, azpimarratu beharrekoa da web irisgarritasuneko



"AAA" maila betetzen duela, usagarritasunik galdu gabe eta nahikoa erakargarria den web diseinuarekin.

Aplikazio horren barruan web estekak egiaztatzeko prozesua aipatu behar da.

Sailaren web gunea:
www.garraioak.ejgv.euskadi.net





27. zk.

2007ko iraila

LABURRAK!!

Widgetak

Widgetak (ingelesez, huskeria edo trastea) berariazko funtzioak betetzen dituzten eta ordenagailuaren mahaigainean edo web orrietan bistaritzen diren programa informatiko txikiak dira. Horien bidez, erabili ohi ditugun edukiak pertsonalizatzen dira. Elementu horiek teknologien konplexutasuna ezabatzea eta horiei balio erantsia ematea helburu duen berrikuntza-eredu dira.



Widgeten garaia programa txiki horiek sortzeko ingurune baten garapenarekin hasi zen, **Konfabulator** izenekoa (2003ko otsaila). Hasiera batean, ordaindu egin behar zen (24,95 \$) eta Mac-erako bertsioa bakarrik zegoen. Gero, orde, doakoa bihurtu zen, Yahoo-k erosi ostean (2005eko uztaila). Ideiak hainbestearainoko arrakasta izan zuen, non **Apple**-ek bere sistema eragilean barneratzea erabaki baitzuen; hala, Mac erabiltzaileen ezaugarri gustukoenetako bat izatera heldu da. 2006an widgeten bertsio berri bat ezagutarazi zen, YouTube edo Flickr bezalako atarrietako edukiak erreferentziatzeko bide gisa. 2007an, **Microsoft**-ek Vista sistema eragilearen berritasun nagusienetakoen artean sartu zuen. Widgeten balioa ez da zeregin konplexuak bide errazetatik egitea ahalbidetzea, baizik eta zeregin errazak eta egunerokoak oso modu eraginkorrean egitea ahalbidetzea: hau da, burtsaren indizea, egutegia, gure herrian izango dugun eguraldia, etab. ikus daiteke, beste web orri bat edo beste aplikazio bat ireki beharrik izan gabe.



Mahaigainetan erabilitako adibideen artean ditugu Microsoften "Vista sidebar"-eko gadgetak eta Apple-eko OSX Dashboardeko widgetak. Sistema eragilean exekutatzeko den programa euskarri dutenen artean Yahoo! widgetak eta **Google** Desktop gadgetak daude. Bestalde, badira web orria osatzen dutenak ere (webtop-ak edo online mahaigainak delakoak); horiek ordenagailuko mahaigainaren online bertsioa izatea dute helburu.




Etorkizunari begira, esan behar da telefono mugikorretarako widgetak ere bidean direla (iPhone).

Mezu baztergarriak

Behin mezu baztergarriak (SPAM edo Junk e-Mail – "zabor-posta"– izenez ere ezagunak) gure posta elektronikoa sartu direnean, horiek kudeatzeko ezagutu beharrekoak diren zenbait aukera daude: gure ingurunean, Eusko Jaurlaritzak jarritako postontzietan, era horretako mezuak automatikoki "mezu baztergarriak" izeneko karpeta batera birbideratzen dira. Behin han bilduta, erabiltzaileak mezu horiek ezabatu behar ditu, baina hori modu seguruan eta eraginkorrean egin behar du, hau da, **mezuak zabaldu gabe eta horiei erantzun gabe**.

Prozesu hori behar bezala gauzatzeko, erabiltzaileak egin behar dituen urratsak jasotzen dira ondoren:

- Karpeta horretan dauden mezu guztiak Spam direla eta, beraz, laneko gaiekin erlazionatuta ez daudela egiaztatu (bidaltzailea nor den eta mezuaren gaia zein den irakurrita).
- Arratoia karpeta gainera jarri.
- Arratoiaren eskuineko botoia sakatu.
- "**Karpeta hustu**" aukera hautatu.



Behin hori eginda, mezu horiek erabat desagertzen dira erabiltzailearen postontzietan (horiek ez dira "Ezabatutako elementuak" karpeta iraultzen). Gauza bera egin dezakegu pixkanaka ezabatu ditugun eta "Ezabatutako elementuak" karpeta pilatzen joan diren elementu guztiak. Komenigarria da aukera hau aldi berean behin erabiltzea, posta elektronikoko postontzia ez kolapsatzeko eta horrek duen tamaina ez gaintzeko.

Informazio gehiago nahi izanez gero,

ikus 16. zk.ko Aurrera aldizkaria

